



MAXIXATZEN



FESTAK OSPATZEKO DATOR SAN ANDRES

ITXARO IRAETA



Gozatu Sanandresak!

www.azkoitia.eus



AZKOITIA
Udala



Zalduntxuk talde berriko kide Roberto Alvarez eta Marta Arregi Azkoitiko plazan. KRIS FERNANDEZ

«Azkoitiko danborrada gustatzen zaien pertsona guztien irudikapena eta ordezkaritza da Zalduntxuk taldea»

MARTA ARREGI ETA ROBERTO ALVAREZ ● Zalduntxuk taldeko kideak

Aurtengo danborradak badu berrikuntza nagusi bat. Talde berri batek parte hartuko du larunbateko desfilean: Zalduntxuk taldeak. Talde berriaren sorreraz Marta Arregi eta Roberto Alvarez kideekin hitz egin du Maxixatzenek.



Ostalaritzarako hornigaiak

Ondo pasau sanandresak!



Nola otu zitzaizuen talde berria sortzeko ideia?

Marta Arregi: Orain arte, ikasle ohi gisa ateratzen ginen Roberto eta biok beste talde batetik; Robertok lau zapabost urte zeramatzan horretan, eta nik, berriz, 17 urte. Talde hark, ordea, arau berriak jarri zituen ikasle ohi berriei lekua egiteko eta haiei danborradan irteteko aukera emateko. Horrenbestez, lau urtez behin arropak itzuli eta berriro atera ahal izateko izena eman behar izaten da. Behin izena emanda, hutsuneen arabera izango genuke berriro irteteko aukera. Guri asko gustatzen zaigu Azkoitiko danborrada, eta horregatik hasi ginen taldea sortzeko ideari buelta batzuk ematen. Zergatik ez sortu talde berri bat?

Roberto Alvarez: Azkoitiko Udalarekin hitz egin genuen aurrena, eta ondoren, herriko ezagun batzuk zirikatu genituen taldea

osatzeko aukerarik izango al genukeen ikusteko.

Nolako izan da taldea sortzeko prozesua?

R. A.: Beharrezko informazioa jasotzeko udalarekin hitz egin genuen, eta lau oinarritzko datu eman zizkigun: taldea osatzeko

«Askok gustatzen zaigu Azkoitiko danborrada, eta horregatik hasi ginen taldearen ideari bueltak ematen»

«Egunaz gozatzea espero dugu; denontzat egun polita izatea nahi dugu. Oso gogotsu gaude!»

pertsona kopurua, adinaren kontuak eta beste pare bat gauza. Horiek betetzeko moduan izango ginela ikusi genuen, eta iazko danborradako azken entseguan

aurrera egitea erabaki genuen. Horrela hasi ginen.

M.A.: Herri txiki guztietan gertatzen den bezala, poliki-poliki talde berria sortzeko ideia zabaltzen joan zen herritarren artean. Taldea osatzeko 40-50 pertsona behar harko genituela esan zigutenean, pixka bat arduratu egin ginen; izan ere, taldea ez genuela osatuko pentsatu genuen. Dena den, espero baino errazagoa izan da prozesua, eta, gainera, itxarotzerrenda ere osatu dugu.

Taldeari Zalduntxuk izena jarri diozue. Zergatik?

M.A.: Taldeari izena jarri behar zitzaion, eta era berean, jantzia erabaki behar zen; biak batera egin genituen. Azkoitiko herriarekin lotura zuen zerbait izan behar zuela argi genuen, baina pilotariak baziren dagoeneko, baserriarren talde asko ere bai... Tata taldeko kide ere banaiz, eta zalduntxoak Azkoitiko bereizgarria

direla pentsatu genuen bilera batean. Gainera, duela urte batzuk umeen zalduntxoaren taldea ere osatu zuten, eta haren berdina edo antzekoa izatea egokia izan zitekeela erabaki genuen.

R.A.: Udalarekin hitz egin dugunaren arabera, eta gainontzeko taldeekin egin duen bezala, bi edo hiru urtez irten behar dugu danborradan taldea finkatuta dagoela ziurtatzeko. Behin hori ziurtatuta, udalak jantziak egiteko dirulaguntza emango digu. Arropa edo jantzi horiek Azkoitiko zalduntxoetan oinarritutakoak izango dira.

Eta aurtengo jantziaz zerbait aurreratzerik bai?

R.A.: Etxeko arrokekin jantziko gara; galtza bakeroekin eta alkandorekin. Barrikak eta danborrak desberdintzeko, batzuk beltzez jantziko dira, eta besteak, zuriz. Horrez gain, zapi gorri batzuk atera ditugu taldeari izaera emateko. Txapela ere jantziko dugu.

Etorkizuneko jantzia

osatzeko laguntza izango al duzue?

M.A.: Juan Bautista Mendizabalekin jarriko gara harremanetan, jantziak izan behar dituen xehetasunak ezagutzeko. Badakigu gure ideien berri iritsi zaiola eta pozik dagoela.

Zalduntxuk nola taldea dela esango zenukete?

R.A.: Oso gustura gaude, talde oso berezia delako gurea. 48 danborjole, bi zuzendari-nagusia eta txikia-, banderaduna eta bi kantinera aterako gara; adin eta jatorri desberdinetako herritarrek, emakumeak, gizonak... Talde





MILAR
LARRAMENDI

Ostiral
azaroak 25

Beltza
BLACK Friday

Ondo pasau sanandresak!

Julio Urkixo etorb. 16 - AZKOITIA • www.milar.eus





Iazko helduen danborradako irudi bat. MAXIXATZEN

Danborrada, taldez talde

Etzi, larunbata, egingo dute sanandresen atarian gauzatu ohi den helduen danborrada. Aurten, Zalduntxuk izeneko talde berri bat aterako da danborradan, eta beraz, 11 taldek parte hartuko dute danbor festan, inoizko talde kopuru handienak.

Musikaz lagunduta, atabal, danbor zein txapa hotsak nagusituko dira etzi, 22:00etatik aurrera, Azkoitiko kaleetan nahiz plazetan. Aurtengoan, 11 konpainiak,

elkartek edo taldek parte hartuko dute danborradan, inoiz baino talde gehiagok. Honako talde hauek parte hartu dute danborren eta txapen desfilean: Ixkitturri elkarte, Pilotarien taldea, Euskal preso eskubideen aldeko taldea Xabier Munibe Ikastolako gurasoen taldea, Xabier Munibe Ikastolako

ikasle ohien taldea, Txintzarri taldea, Aldapa taldea, Floreaga Ikastetxeko gurasoen taldea, Floreaga Ikastetxeko ikasle ohien taldea, Azkoitiko Udalaren taldea eta Zalduntxuk taldea. Azken hori da aurtengo berrikuntza nagusia. Hona hemen helduen danborradan parte hartuko duten taldeen informazioa.

IXKITTURRI ELKARTEA

Sorrera urtea: 2001a.

Jantzia: Baserritar jantzia.

Danborrak ala txapak: Emakumeek danborrak jotzen dituzte, eta gizonek txapak.



PILOTARIAK

Sorrera urtea: Danborrada San Andres jaietan egiten hasi aurretik; ez dago data zehatza jasota.

Jantzia: Pilotari jantzia.

Danborrak ala txapak: Jertse gorridunek danborrak, eta jertse urdindunek txapak.



EUSKAL PRESOEN ESKUBIDEEN ALDE

Sorrera urtea: Danborrada San Andres jaietan egiten hasi aurretik; data zehatzik ez.

Jantzia: Baserritar jantzia.

Danborrak ala txapak: Emakumeek danborra, eta gizonek txapa.



XABIER MUNIBEKO GURASOAK

Sorrera urtea: 2005a.

Jantzia: Sukaldari jantzia.

Danborrak ala txapak: Jantzi beltza dutenek danborra jotzen dute, eta gorria dutenek txapa.



XABIER MUNIBEKO IKASLE OHIAK

Sorrera urtea: 2005a.

Jantzia: Baserritar jantzia.

Danborra ala txapa: Emakumeek danborra, eta gizonek txapa.



TXINTXARRI

Sorrera urtea: 2015a.

Jantzia: Sukaldari jantzia.

Danborra ala txapa: Taldekide denek danborra jotzen dute.



ALDAPA

Sorrera urtea: 2018a.

Jantzia: Kamiseta horia eta txapel zein zapi beltzak.

Danborra ala txapa: Taldekide guztiek danborra jotzen dute.



Eskatu desio bat

 **IzarJai**

Bizigunea • Kurutzia • Azkoitia

IZARJAI.COM

GE
grupo eibar
inmobiliario

AZKOITIKO GRUPO EIBAR-EN BULEGOA
Julio Urquijo Etorbidea 30

618 614 541

comercial@grupoeibar.com
www.grupoeibar.com



FLOREAGAKO GURASOAK

Sorrera urtea: 2003a.

Jantzia: Baserritar jantzia.

Danborra ala txapa: Gizonek txapa, eta emakumeek danborra.



FLOREAGAKO IKASLE OHIAK

Sorrera urtea: 2003a.

Jantzia: Baserritar jantzia.

Danborra ala txapa: Gizonek txapa, eta emakumeek danborra.



UDALEKO TALDEA

Sorrera urtea: Danborrada San Andres jaietan egiten hasi aurretik; data zehatzik ez.

Jantzia: Napoleon jantzia.

Kideak: Gizonek danborra, eta emakumeek txapa.



ZALDUNTXUK

Sorrera urtea: 2022a.

Jantzia: Jantziak egin bitartean, alkandor zuri eta beltzak nahiz zapi gorriak.

Danborrak ala txapak: Alkandora zuridunek danborrak, eta alkandora beltzdunek, txapak.



IKUSI DANBORRADA ZUZENEAN

Azaroak 26 larunbata, 23:15ean


Erlo TB eta Maxixatzen.eus-en

MAXIXATZEN

erlo
TELEBISTA

Gutxi falta da danbor festarako

Bi egun besterik ez dira falta helduen danborradarako. Aurtengo sanandresetako hitzordurik nagusienetakoa izango da, eta dena prest dago danborren eta txapen hotsak Azkoitiko kaleetan ozen entzuteko.




hiko gisan, 22:00etan abiatuko da aurtengo helduen danborra-

daren desfilea Gurea pilotalekua-
ren aurretik. San Andres jaietako
danborradan parte hartuko du-
ten 11 taldeak Aingeru kalea jaitsi
eta Kale Nagusia sartuko dira,
plazara iristeko.

Plazan, musika bandaren la-
guntzarekin, San Sebastian, Dia-
na, Idiarena eta Tanbores-Tatia-
go piezak joko dituzte. Kale Na-
gusian barrena jarraituko du
desfileak, eta Balda plazara joan-
go dira parte hartzaileak gero;
Umore Ona, Azkoitia eta Deba
piezak joko dituzte han. Julio Ur-
kijo kaletik igarota, Kale Nagusia
pasatuta, plazara itzuliko dira tal-
deak. Azken geldialdi horretan
zortzi pieza joko dituzte parte
hartzaileek: Azkoitia, San Sebas-
tian, Diana, Idiarena, Deba,
Umore Ona, Xoxote eta Tanbo-
res-Tatiago.

Plazako bigarren geldialdian,
gisa honetan kokatuko dira talde-
ak:

Aingeru kalean, Kale
Nagusian, plazan, Balda
plazan nahiz Julio Urkijo
kalean ikusi ahal izango
da danborren desfilea



Taldeek kokapenaren planoak. ERREDAKZIOA



BATZOKIA
ondo pasau
sanandresak!
Julio Urkijo Hiribidea, 11 • 943 85 73 32



Laster hasiko dugu 2. fasea

GURE WEB ORRIA
www.txalonerreka.com
NUESTRA WEB

• Etxebizitza eguzkitsuak
• 2-3 logelako etxebizitzak
• Terraza zabalak
• Garaje itxiak

**ondo pasau
sanandresak!**

TXALONERREKA

INFORMAZIOA 943 15 70 07 • muno@muno.eus

Euskal jantzi tradizionala, baserritik kalera

San Andres egunak badu bereizgarriak, eta horietako bat da baserritar jantzia. Egun horretan ume, gazte zein heldu ikus daitezke euskal jantzi tradizionalarekin kalean. Arropa guztiekin gertatu den bezala, denborak eragindako joera aldaketek eragina izan dute baserritar jantzietan ere. Aldaketa horiez eta Azkoitiko ohiturez hitz egin du Maxixatzeneke Bego eta Maina mertzerietako ordezkariekin.



Beste urte batez, Azkoitiko kaleak baserritar jantziz beteko dira San Andres egunean. Jantziak zuriak, beltzak edota koloretakoak izan, tradizioari jarraituko diote azkoitiarrak. Euskal jantziaren bilakaera nabarmena izan da azken urteetan; izan ere, baserritar jantzi bezala ezagutzen dena, garrantzia handiko jantzi eta ohitura bihurtu da eskualdeko nahiz Euskal Herriko hainbat festatan, nesken edo emakumeen kasuan, batik bat. Azkoitiko San Andres festak eta San Andres eguna ez dira salbuespena. Ondo baino hobeto dakite hori herriko Bego eta Maina mertzerietako kideek.

osutzen zuten uniformea. Azken urteetan, ordea, aukerak areagotu egin dira. «Dantza txapelketak direla eta, joera berri egin da, eta jantzi horiek ikusteko aukera izan dugu. Gero eta aukera handiagoa dago, eta gainera, lehengo jantzi haiek eta oraingoek ez dute zerikusirik. Oraingoak askoz politagoak dira, kolorez, formaz... Lehengoak amonek erabiltzen zituztenen itxurakoak ziren; gona eta blusa, eta batzuek, amantal txiki bat janzten zuten», azaldu du Maina Arzallus Maina mertzeriako kideak.

Kalerako arropekin gertatzen den gisan, baserritar jantziak ere joeren arabera aldatu dira. Hala dio Bego Osinalde Bego mertzeriako kideak.

Urtean behin edo bitan jantzi arren, garrantzi handia ematen zaio baserritar jantziari. Duela urte batzuk ez zen jantzi horien aukera handirik, baina gaur egun kolore, forma eta ehun ugariak jantziak aurki daitezke han eta hemen. Izan ere, herriarrek gaur egun dituzten nahiak eta beharrak ere aldatu egin dira. Horren erakusle da duela 20 urteko emakumeen baserritar jantziak beltzak eta lore txikiak diseinudunak izatea oro har. Mutilen kasuan, berriz, mahoizko galtzek eta blusa edo alkandora beltzak

riako ordezkariak: «Kolore aldaketa, adibidez, asko nabaritu da. Duela urte batzuk denek granate koloreko jantzia nahi izaten zuten, eta orain inork ez du halakorik eskatzen. Modan dagoena edo gehienek eskatzen dena kolore gehiegirik gabeko jantzia da. Izan ere, jendea nekatu egiten da kolorearekin». Gaur egungo kolore nagusiak beltza edota grisa direla esan du hark: «Betirako jantziak nahi dituztenek kolore horietakoak erosten dituzte».

Hala ere, adinaren arabera koloreak aldatzen joaten direla ere aitortu du. Haurren kasuan, adibidez, kolore gehiago erabiltzen direla eta horietako gehienak utzitakoak izaten direla esan du. «Ume txikiek lagunek edo familiako kideek utzitako jantziak erabiltzen dituzte, eta hazten diren heinean erosten dituzte», azaldu du Arzallusek.

Jostetik erostera

Erostea. Hori da, hain zuzen ere, azken urteetako ohitura. Duela urte batzuk jantzi osoa enkarguz josten bazen ere, azken urteetan aurrez egindakoak erosten direla esan dute Osinaldek nahiz Arzallusek. Biak ala biak jostunak izandakoak dira, baina gaur egun

«Kolore gehiegirik gabeko baserritar jantzia da gehien eskatzen dena edo modan dagoena»

«Egungo aukera ikusita, jantzia erostea da onena. Pieza bakoitza banaka eros daiteke, gainera»

baserritar jantzirik ez dutela josten onartu dute. «Enkarguz jositako jantzia eskatzen baldin baduzu, ikaragarritzko traja izango duzu... Baina horrek denbora eta pazientzia asko eskatzen du, eta jantziak dotoretu egin dira».

Ba al zenekien?

• Buruko zapiak emakumearen egoera zibila islatzen zuen: ezkonduak zuria janzten zuten; alargunek beltza; eta ezkongabeek koloreduna –edota zapirik gabe, ilea jasota–.

• Baserritarrek lanerako bakarrik erabiltzen zituzten abarkak. Baseritik kalera iristen zirenean erantzi eta alpagata edo zapatak janzten zituzten.

• Baserritarren amantala lanerako arropa zen; gona babesteko balio zuen. Jasota eramaten zuten batzuetan, zikindutako zatia estaltzeko helburuz.

daiteke», esan du Osinaldek. Iritzi berekoa da Arzallus ere: «Egungo aukera ikusita, erostea da onena. Pieza bakoitza banaka eros daiteke; ez duzu jantzi osoa erosi beharrik. Gainera, jantzia denborarekin aldatu ere egin dezakezu».

Baserritar jantziari lotuta ez ezik, osagarrietan ere izan dira aldaketak azken urteetan. Orain, tokilla edota buruko zapi gutxiago eskatzen dira, baina, aldi berean, gerruntzeak erabiltzeari ekin diote azkoitiarrak. Horretarako arrazoiak askotariakoak izan daitezke, baina Arzallusen iritziz, «gustuen arabera» izaten da osagarrien kontua: «Buruko zapiaren joera galtzen ari da, eta kakorratz lanez egindako sareak ikusten ditut azkenaldian. Zapia janztea baino errazagoa da sare jarzea». Mutilen kasuan ere, izan dira aldaketak. Hala dio Osinaldek: «Txalekoak hasi dira erabiltzen, eta distira zertxobait sartu dute jantzietan. Kolore aldaketak izan dira; mahoizko galtzak eta blusak, arropa beltz eta grisek ordezkatu dituzte, eta jantziak dotoretu egin dira».

ttakun
ondo pasau
sanandresak!

NAGUSIA 81 • 943-08 30 32
www.tta-kun.com • azkoitia_ttakun@hotmail.com

Dean
ondo pasau sanandresak!
Kale Nagusia, 41 • 943-10 52 62

GE S.A.

GONZALO ESCARTIN, S.A.

Instalazio elektrikoak eta telekomunikazioak

Ondo pasau Sanandresak!

Juin Txiki industrialdea 6. zenbakia
20720 Azkoitia
Tel. 943-85 24 56

Pilotak bere lekua du sanandresetan

Pilotari profesionalen Eskuz Binakako Txapelketako partidak edota XLVII. Kontzejupeko Pilota Txapelketaren finalak izan, pilotakada hotsak izango dira nagusi Azkoitiko pilotalekuetan, San Andres jaietako egunetan.

Urriaren 10ean ekin zioten herriko pilotariak XLVII. Kontzejupeko Pilota Txapelketari, eta aste honetan jokatu dituzte finalaurrekoak. Finalak San Andres egunean izango dira, udal-letxe azpiko frontoian, Kontzejupean. 17:00etan hasiko dira txapelketako azken partidak; bost fi-

nal izango dira guztira. Benjamin (8-9 urte), kimu (10-11 urte), infantil (12-13 urte), kadete (14-15), jubenil eta nagusien (16tik gorakoak) mailetak norgiagokak jokatu dituzte pilotariak.

Oteiza pilota elkarteko kideek azaldu dutenez, «beti giro ona» sortzen den eguna izaten da San Andres eguna. Dena den, eguraldiarekin zorte txarra izan ohi dutela adierazi dute: «Eguraldi txarra tokatzen zaigu gehienetan, eta hori da txarrena. Izan ere, pilotalekua busti egiten da, zerrautsa bota behar izaten dugu, eta horrek ikuskizunean galera eragiten du. Gainera, ikusleentzat toki gutxi izaten da Kontzejupean. Eguraldi ona eginez gero, baina, jende asko elkartzen du hitzorduak; beraz, ea eguraldi ona egiten duen aurtan».

Kontzejupeko Pilota Txapelketaren XLVIII. edizioa da aurtengo. Guztira, 89 pilotarik parte hartu dute lehian, eta 50 partida inguru jokatu dituzte horiek. Oteizako kideak «oso gustura» daude txapelketak izan duen harrearekin: «Oso ondo joan da

hasieratik; izan ere, izen-ematea iaz baino hobeia izan da. Lehengo urtean, 70 pilotarik parte hartu zuten, eta aurtan, orduan baino 19 gehiagok. Azkoitia herri oso pilotazalea da, betidanik izan da pilotarako zaletasuna». Txapelke-

«Eguraldi ona izanez gero, jende asko elkartzen du hitzorduak; ea eguraldi ona egiten duen»

«Oteizaren ateak herritar denentzat daude zabalik, eta azkoitiarrak gurera etortzera animatu nahi ditugu»

tak eta partidak urte guztian antolatzen dituztela ere esan dute: «Oteizaren ateak herritar denentzat daude zabalik, eta azkoitiarrak gurera etortzera gonbidatu nahi ditugu, giro ederra izaten delako».

Meritu handia du Oteizako kideek egiten duten lanak, azken urteetan kirol modalitate asko egiteko aukera sortu delako. Horrek, baina, izan du bere eragina pilotan ere: «Nabaritzen da gaitzaren kirolen gorakada. Pilotak asko exijitzen du, bakarrik jokatzen duzu pilotan, eta irabazi edo galdu, bakarrik egiten duzu». Horregatik, Oteizako kideek taldeko giroa sortzeari «garrantzia handia» ematen diote. «Giro hori gabe zailagoa izango litzateke pilotan aritzea».

Lana da, beraz, Oteiza pilota elkartaren sekretua. Lana eta antolaketa. Izena emateko epea ireki, datak zehaztu, frontoia txukun mantendu, lehiak antolatu, sariak prestatu... Hala diote: «Ondo antolatutako talde lana egiten saiatzen gara. Elkarrekin ligaxka erara antolatzen ditu txapelketak, modu horretan, hurrek partida gehiago jokatzeke aukera izaten baitute. Gainera, txikienentzat ez dugu kanporaketarik antolatzen, gozatuz partida bat baino gehiago jokatzeke aukera izaten dutelako horrela», azaldu dute.

Bihar, profesionalak

Kontzejupeko Gurea pilotalekura. Pilotari profesionalen Eskuz Binakako Txapelketako partidak izango dira bihar, 22:00etan. «Profesionalak jendea erakartzeko indar handia dute, eta jende asko biltzen dute hitzorduetan. Herri festazalea eta pilotazalea da gurea, eta biak uztartuz, giro bikaina izaten da pilotalekuan. Ea pilotariak ikuskizun bikaina eskaintzen duten», adierazi dute Oteizako kideek.



Oteiza elkarteko kide bat eta hainbat pilotari Kontzejupean. OTEIZA ELKARTEA


INTZA
LUBRICATION SYSTEMS
ONDO PASAU
SANANDRESAK!


alberdi
ONDO PASAU
SANANDRESAK!



Herri lasterketa bateko irudia. MAXIXATZEN

Dena prest XVII. Herri Lasterketarako

Larunbatean egingo dute Azkoitiko XVII. Herri Lasterketa. Urtero bezala, hamar kilometroko ibilbidea prestatu dute probaren antolatzaileek. Korrikalariak herrian barrena osatuko dute ibilbidea, eta helmugara iristen diren lehen hiru gizon-emakumeek jasoko dituzte sariak.

Azkoitiko kaleak prest dira XVII. Herri Lasterketarako. Iazko edizioan erabilitako maskarak alde batera utzita iristik da aurtengo kirol proba. 350 lasterkaririk parte hartu ahal izango dute larunbateko proban, baina lasterketaren sustatzaileek ez dute uste dortsak guztiak agortuko direnik. Hala ere, 300 korrikalari inguruk parte hartuko dutela uste dute Azkoitia-Azpeitia Raka Maraton kirol elkarteak. «Zifra horren bueltan ibiltzen gara urtero, eta aurtengo ere hala izango dela aurreikusten dugu. Gure probaren antzeko datetan beste lasterketa batzuk ere izaten dira, Donostian adibidez, eta korrikalariak horiek nahiago izaten dituzte. Baina larunbatean Azkoitia 300 korrikalariak parte hartzen baldin badute, gu gustura», azaldu dute elkarteak kideak.

Probarakoizen emate epea irekita izango da bihar arte, herri-krosa.eusatarian. 16 urtetik gorako herritarrek izango dute parte hartzeko aukera, eta horiek hamahiru euro ordaindu beharko dute. Dortsak jasotzeko mahaia 14:30ean jarriko dute, plazan.

Urtero bezala, hamar kilometroko ibilbidea prestatu dute la-

runbaterako, eta korrikalariak herrigunean gauzatuko dute proba guztia. «Ibilbidea azkarra da, markak lortzeko egokia, aldapa handirik ez baitu. Pentsa, korrikalari batzuek pentsatu izan dute ibilbidea ez dela hamar kilometrorira iristen», esan dute Rakako kideak. Helmugara iristen diren lehen hiru gizon-emakumeek ja-

soko dituzte sariak; eta zozketak ere egingo dituzte parte hartzaile guztien artean. Halaber, parte hartzaileek poltsa bat eta zenbait opari ere jasoko dituzte.

Zapaturako argibideak

16:30ean hasiko da proba herriko plazatik, eta hantxe amaituko da. Raka elkarteak herritarren ba-

besa izatea espero dute, baina badakite eguraldiaren menpe izango direla: «Eguraldian ezin dugu eragin, eta, momentuz, ona edo euri gutxi dago iragarrita. Baina ikusiko dugu egunean bertan zer egingen duen». Bestalde, giro ona sortzea espero dutela adierazi dute, lasterketaz gain, festa ere izaten delako. Gainera, probak herriko ekonomian eragiten duela ere uste dute, «tabernen eta jatetxeen ekonomian, batik bat».

Ibilbideko bidegurutzeetarako boluntarioak behar dituztela ere esan dute Rakako kideak, 30 pertsona inguru, eta laguntzeko prestutasuna duten herritarrei 15:00-15:30ean plazara agertzeko deia egin diete.

Azkoitia-Azpeitia Raka Maraton kirol elkarteak 2003. urtean sortu zuten, eta handik bi urtera, 2005ean, antolatu zuen lehenbiziko Herri Lasterketa; abenduaren 10ean izan zen urte hartako

«Larunbatean Azkoitia 300 korrikalariak parte hartzen baldin badute, gu gustura»

«Ibilbidea azkarra da, markak lortzeko egokia, aldapa handirik ez baitu»

proba. Lehen aldi hartan 240 korrikalari baino gehiagok parte hartu zuten. Ordutik, Azkoitiko eta Azpeitiko herritar askok jarraitzen dute lasterketan parte hartzen.

Lasterketen kopuruak izan duen gorakada tarteko, horiek gainbeheran daudela uste dute Rakakoek. Hala ere, Azkoitiko probak «bizirik» jarraitzen duela azpimarratu dute. «Korrika egingen duten pertsona guztien elkarrekin izatea da Rakaren helburua, izaera berezikoa delako eta bazkideei abantailak eskaintzeko».

**EROSKI**
zurekin
ondo pasau
sanandresak!
POLIGONO BASTERRETXE Z/G, AZKOITIA • 943-85 04 92

**ondo pasau
sanandresak!**
makibar Altzibar Etorbidea, 17
943-53 37 52

Umeen leku gustukoena



Euriarekin ere, festa!



Festarik ez



Sanandresak Azkoitian ondo errotutako festa dira; izan ere, XVIII. mendean dute jatorria. Udalbatzak 1752an erabaki zuen azaroaren 30a San Andres eguna izendatzea, urteko festa egun horretan egiteko. Gaur egun, jai egun bihurtu da azaroaren hondarrekoa, eta herritarrek kaleak betetzen dituzte eguneko ekitaldiez gozatzeko.

Sanandresen oroimenez

San Andres eguna azaroaren 30ean ospatzen den arren, bi astetan izaten dira jaietako ekintzak herrian. Urteetan, askotariko irudiak eta oroitzapenak utzi dituzte ekitaldi horiek guztiek. Herritar bakoitzak bere

oroitzapenak izango ditu norbere iruditerian, eta urtez urteko jaietako une asko eta asko irudietan jasota ditu Maxixatzenek. Horieta batzuk ekarri ditu komunikazio taldeak orriotara, oroimenaren kutxa astintzeko.

Gogoratzen elurra egin zuen urte hartaz? Oroitzen Txalkor txistulari taldeak omenaldia jaso zuen jai haiez? Norke ez ditu gogotan txosnetan lanean aritzen diren herritar horiek guztiak? Sei urte badira Jon Unanue Goenatxo III.ak bere buruari jarritako bi marka pertsonalak egitea lortu zuela; oroitzen? Festarik egin ez zen aldi hura gogoan?

Aurten ere ekitaldi ugari gozatzeko aukera izango da, eta festaren lehen urratsak eman badira ere, hona hemen hainbat urtetan sanandresetan egindako askotariko ekitaldietako irudi bilduma. Gogoratzen une horiez?

taberna **zur**

ondo pasau sanandresak!

KALE NAGUSIA, 68 - AZKOITIA • 943-85 12 75

LATZ
TABERNA

ONDO PASAU SANANDRESAK!

KALE NAGUSIA, 55 • 943-85 13 19

Festak zuri



Txalkorrek omenaldia jaso zueneko



Idi dementzat tartea



'Goenatxo' ren markak



Festaren atzeko lana



Marrazkirako zaletasuna



Urrategi
ETXEGINTZA S.L.
Bizkargi kalea, 3 behea • Azkoitia
943-85 07 09 • urrategi@urrategi.com

**ONDO PASAU
SANANDRESAK!**

galipan
JATETXEA
TABERNA
**ondo pasau
sanandresak!**



Iritzia
Javier Zubizarreta

Azkoitiko alkatea

Herri maite peto-petoak

Alferrik esango dugu festei ihesi ibiltzen garela. Kalezaleak gara, lagun artekoak, mahai bueltakoak. Batzuetan mundua Azkoitian hasi eta amaitzen dela ematen du. Eta ez al da hori gauza ederra? Kalera irten eta elkar agurtzeko aukera izateak ez du preziorik. Ondo-ondoan bizi gara denok, batzuetan nahita edo nahigabe urrunduta arren. Herriarren arteko hurbiltasunaren adierazle argienak dira herriko festak.

Bi urtez egon gara San Andres jaiak ospatu ezinda. Hura bai hura tristura! Arrastoa utzi digu, nola ez. Baina buelta ematen ere asmatu dugu. Lana egin behar denean dena ematen duen, eta festan ere, atzean geratzen ez den jendea gustuko dut. Ahalegindu behar denean ahalegintzen dena; gozatu behar denean, gozatzen dakiena, alegia. Eta herri honetan horrelakoak garelakoan nago, herri maite peto-petoak.

Gure aurrekoak ere ez ziren makalak izango! Arbasoengandik jaso ditugu sanandresen bueltako ohiturak. 1752ko

abuztuan erabaki zuten azoka San Andres egunean ospatzea. Batetik, merkatariak gero Santa Luziko feriara joan zitezkeelako, eta bestetik, ganadu erakusketarako data egokia zelako. Horrela du jasota Azkoitiko kronista Juan Bautista Mendizabalek. Ez dakit txistor eta talo posturik izango ote zen orduan, baina modu batera edo bestera, jarraipena ondo eman diogula argi dago. Aurten ere, San Andres egunean ondo pasatzeko intentzioa daukat nik, baserritar jantzita eta txapela buruan, gure aurreko eta gaurko baserritar guztien omenez.

Edonola ere, sanandresen harira, gero eta jarduera gehiago antolatzen dira, gero eta zabalagoa da egitaraua. Festa luzeegiak ote? Ez dut uste. Gustuko lekuan, aldaparik ez. Eta eskerrak! Ez dago festarik, herritarrik gabe, ezta lanerako prest dagoen jenderik gabe ere. Festen antolakuntzak esku asko eskatzen ditu. Danborradaren edota postuen muntaketak eta kudeaketak bere lana ematen dute, nola ez. Eta eskertzekoa da herritar bakoitzak, jaiak ondo ateratzeko, musutruk egiten

Sanandresen harira, gero eta jarduera gehiago antolatzen da, gero eta zabalagoa da egitaraua

Eskertzekoa da bakoitzak, jaiak ondo ateratzeko, musutruk egiten duen ahalegina

duen ahalegina. Elkarrekin, kirolariak, trikitilariak, musikariak... zorretan gaude haiekin ere.

Izan daitezela aurtengoak ere gogoan geratuko zaizkigun oroitzapen, pasadizo eta elkarriketa politak utziko dizkiguten sanandresak.

Ondo pasau!



Egun handiaren zain

San Andres jaiei lotutako lehen ekintzak egin dira Azkoitian. Besteak beste, idi demak eta musika nahiz dantza ikuskizunak izan dira jada herrian, eta horiez goatzeko aukera izan dute azkoitiarrek. Asteburu honetan festa giroak bere horretan jarraituko du, danborradarekin eta kirol proba desberdinekin. Asteazkenean izango da, ordea, egun handia: San Andres eguna. Hona hemen festen egitarau osoa. ERREDAKZOA

Agenda

Bihar, ostirala

22:00. Pilotari profesionalen Eskuz Binakako Txapelketako partidak, Gurea pilotalekuan.

Azaroak 26, larunbata

16:00. Zubiaurre igeri elkarrekin antolatutako haurrentzako San Andres Igeriketa Saria, Elkargunean.

16:30. Raka Maraton taldeak antolatutako VII. Herri Lasterketa, plazatik abiatuta.

22:00. Sanandresetako helduen

danborrada, herriko kaleetan zehar.

Azaroak 27, igandea

Goizean, herriko baserritarren azoka, herriko plazan.

Goizean, ehaziri edo bolillo erakusketa, Kontzejupean.

11:00etatik aurrera. Garapenean Bidelagun azoka, herriko plazan.

12:00. Bizkargi musika eta dantza eskolako musikarien nahiz dantzarien eta Txalkor txistulari taldeko kideen kalejira, herriko kaleetan zehar. Eguraldi txarra egingo balu, Elkargunean izango da.

Azaroak 30, asteazkena

Egun osoan zehar, postuak

izango dira herriko plazako arkupean bueltan.

10:00. Txuri Urdin elkarrekin antolatutako marrazki lehiaketa hasiko da.

10:00. Herriko trikitilari gazteen kalejira.

12:30. Herri kirol jaialdia, herriko plazan.

14:00. Marrazki lehiaketaren irabazleei sariak banatuko dizkiete, herriko plazan.

17:00. Oteiza pilota elkarrekin antolatutako XLVII. Kontzejupeko Pilota Txapelketaren finalak, Kontzejupean.

Abenduak 4, igandea

10:00. Anaitasuna Kakute xake taldeak antolatutako XXVII. San Andres Xake Txapelketa, Elkargunean.

GOIKO

BURDINDEGIA

50

URTE



Ugarte Industrialdea, 56
20720 AZKOITIA (GIPUZKOA)
Tel. 943 85 13 13
burdindegia@goiko.eus
www.cadena88.com/goiko

ETXEBIZITZA FASE BERRIA

AZKOITIAN BIZITZEKO LEKU PAREGABEA



**ERAIKITAKO URBANIZAZIO PRIBATUAREKIN BAT EGINIK
KALITATEZKO ETXEBIZITZAK**

Informazioa eta salmenta
www.gruposorelor.com

943 85 02 22



JUIN BERRI